



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2026ko otsailaren 25ean, goizeko zortziak eta hogeita hamarrean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura berezia egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/andereak: Barberena Echart, Beñat - Magallon Arbizu, Ángel - Merino Iriarte, Juan Esteban - Ubau Galarza, Nere.

LEHENA.- BIOSFERA ERRESERBAKO PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK

Aurreko bileretan jakinarazi den bezala, berrikusi eta aldatu da 2020an onartutako Biosfera Erreserbako Partzuergoaren Estatutuen testua, egungo lege-araudira egokitzeko eta gobernu-organismoak eguneratzeko (Nafarroako Gobernuaren ordezkariak izendatu behar dira, bai Partzuergorako, bai Zuzendaritza Batzorderako).

Estatutuei egindako aldaketak (deialdiari erantsita zeuden) Biosfera Erreserbako Partzuergoarentzat egin dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 118. artikulutik 127. artikulura bitartekoetan oinarrituta, eta bereziki kontuan hartuta 124. Artikuluak, edukiaz mintzo denak, dioena.

Osoko Bilkurak, proposamena aztertu ondoren, aho batez honako hau erabaki du:

1.- Hasiera batez onestea Irati Biosfera Erreserbaren estatutuen aldaketa.

2.- Aldaketa jendaurrean jartzea, hamabost egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, Nafarroako Toki Administrazioa Erreformatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen 212.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, edozein pertsonak espedientea aztertu eta beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Alegaziorik aurkezten ez bada, izapidea bete dela eta aldaketa onartu dela ulertuko da.

3.- Estatutuen 7. artikuluen arabera, partzuergoko erakundeen ordezkari guztiek osatzen dute Kontseilu Errektorea, eta partzuergo kudeatzeko eta ordezkatzeko organo gorena da. Aezkoako Batzarre Nagusiari dagokio organo horretarako hiru ordezkari izendatzea.

Aurretik bi ordezkari izendatu zirenez, falta dena hautatu da, eta Ubau bokal andrea aukeratu da aho batez. Ubau andereak, batzarreburu jaunak eta Merino batzarrekide jaunak osatzen dute Aezkoako Batzarre Nagusiaren ordezkari-tza Kontseilu Errektorean.

Bestalde, erabaki da mezu elektroniko bat igortzea ibarreko udal guztiei, Erreserbako Aholku Batzordean beren udalaren ordezkari bat aukeratu behar dutela gogora dezaten.

BIGARRENA.- BATZORDEEN BERRANTOLAKETA.

Batzarrekide batek karguari uko egin, eta, ondorioz, Magallon jaunak Batzarre Nagusian sartu ondoren, berrikusi behar da batzordeen osaketa eta entitate honen ordezkariak, Batzarre Nagusia nortzuek osatzen duten kontuan hartuta.

Hartara, honako aldaketa hauek onartu dira:

- Ubau andrea izendatu da Euskara Batzordeko arduradun.
- Magallon jauna Turismo Batzordean sartu da.
- Magallon jauna Osasun, Ongizate eta Auñamendi Mankomunitateko Batzordean sartu da. Gómez anderea izendatu da horren arduradun.
- Ibañeta laguntza-sozietaterako ordezkari aldatzea erabaki da. Titularra presidentea izanen da, eta Gómez anderea, ordezkaria (akats batengatik alderantziz jasota zegoen).

Gai horri dagokionez, jakinarazi da Ibañeta laguntza-sozietatea aldatzeko prozesuari buruzko dokumentazio guztia bidaliko dela, eguneratuta egon bezain laster.

HIRUGARRENA.- KONTZILIAZIO ZERBITZUA

Presidente jaunak gogorarazi du aurrekontu-partida bat lortu zela, zuzenketa bidez, Pirinioetan kontziliazio zerbitzua antolatzeko, dirulaguntza erakunde bakar batek kudea zezan. Dirulaguntza horren zenbatekoa hirurogei mila eurokoa da, eta honako esparru geografikoa hartuko luke: Auñamendi Mankomunitatea, Zaraitzu eta Erronkari. Erakunde bakar batek kudeatu beharko luke. Entitateen artean erabaki zen kudeaketa eta kontratazioak Aezkoako Batzarre Nagusiak egitea, Erroko Udalarari Ibañeta Asistentziaren gaia izapidetzea agindu baitzaio.

Une honetan Gu Pirinioan lantzen ari da gaia, eta asmoa da hiru hitzarmen egitea Batzarre Nagusiaren eta gainerako erakundeen artean, baina oraindik ez da erabat zehaztu.

Eta aztertzeko gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako bederatziak eta hogeita hamar minutuak zirela. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.